

Andra Mari eta Santa Eufemia jaiak →

Arrantzale eguna egun handia izaten da Bermeoko herritarrentzat; giro itzela egoten da goizetik gauera arte. OLAIA ZABALONDO

Bihartik jai giroak bete-betean harrapatuko ditu bermeotarrak. Etzi Xixiliri ondoetorria emanda, bi astez adin eta gustu denentzako ekitaldiak egongo dira aukeran, herritarrek goza dezaten.

Bi astez jai giroan Xixiligaz

Aintzina Monasterio Maguregi

Bermeoko Andra Mari eta Santa Eufemia jaiak hilaren 7tik 16ra bitartean diren arren, aurten, aurreko eta hurrengo asteburuetan ere jai giroa nagusituko da herrian. Bihar Euskal Herriko Elektrotzaranga topaketaren doinuek alaituko dute herria egun osoan. Hilaren 16an Xixili agurtu arren, bestalde, hilaren 20an estropadak eta beste hainbat ekin-tza izango dira aukeran.

Maribi Larrinaga Bermeoko Jai Batzordeko kidearen berbetan, «adin guztientzako ekintzak antolatzen ahalegindu gara; ume zein helduentzat. Hala, herritarrek animatu nahi ditugu, jai bake-tsuen aldeko mezua zabalduz».

Etzi, gauetz egingo diote ondoetorria Xixiliri. Hala ere, egunean

zehar ere, herritarrek jai giroan murgiltzeko aukera izango dute. Almika auzoan esaterako, untxi txapelketa, baserri kirolak, sardina jan herrikoia eta erromeria egingo dituzte. Bermeoko herri-gunean, bestalde, bigarren esku-gauzen azoka, plater tiroketa saria, Itsasoko eguna eta herriko irrintzilarien emanaldia egongo dira aukeran.

Txupinazoa Goiko plazan

Gauean, 21:50ak aldera, agertuko da Xixili udaletxe aurreko plazan, eta 22:00etan botako du pregoia Idurre Bideguren alkateak. Ostean, ikurrina jasoko dute eta jaien hasierako txupina jaurtiko dute bermeotarrek.

Biharamunean, Andra Mari egunez, Almika auzora igoko dira bermeotarrak ohiturari jarraituz. Arratsaldeko 18:00etan, esaterako, umeen danborrada egin-

go dute auzoan. Iluntzean, bestalde, txosnetan Eneritz Artetxeren bakarrizketak entzungai izango dira, eta gauean suziriak jaurtiko ditu Valecea su etxeak. Ostean, tango dantzaldiagaz goatzeko aukera eskainiko dute *El Cachivache Tango* musika taldeko kideek.

Jaietako egun handia hilaren 9an ospatuko dute bermeotarrek; hain justu, Arrantzale eguna. Larrinagak dioenez, «egun guztian giro ederra izango da kalean; denok maoiz jantzita dantzan eta kantuan ariko gara». Tradizioa mantenduz, herriko itsas gizon eta andrak omenduko dituzte. Hain zuzen, Galdaradun baporetan bizitza galdu zutenak, itsas- an beste batzuen bizitzak salbatu zituztenak eta Gaztelugatxe-ko San Juaneko jagoleak omenduko dituzte.

Bestalde, fanfarreak, bilbaina-

dak, *Nuntxaku Karroaren* kalejira, Honat taldearen dantzaldia, eta FM diskoteka egongo dira kaleak musikaz betetzeko. Aurten gainera, gau horretan drogen inguruko *Ai Laket!* testing programako kideak egongo dira Lameran. «Orain arte Aritxatxu Rock jaialdian egon izan dira, eta lehenengoz etorriko dira jaietan», azaldu du Larrinagak.

Jai giroa eten barik

Andra Mari Hirugarrenean ere ez dute atsedenik hartuko herritarrek. Umeentzako poniak, Herri kirolak, Markeliñeren *ZooZoom* umeentzako antzerkia edota mus txapelketak izango dira, besteak beste.

Hurrengo egunean, hilaren 11an, adin tarte guztientzako aukera zabala egongo da: tortilla txapelketa, antzerki amateurra, bitsaren jaia, ur jaurtiketa, edota

esku pelota, futbolin eta *play back* txapelketak.

Bestalde, gaur zortzi umeentzako tailerrak, eta batel estropadak egingo dituzte. Ostean, Drag Queen kalejirak kolorez bustiko du herria, eta Vendetta-ren kontzertuak saltoka ipiniko ditu Lameran biltzen diren entzuleak.

Sukalki gozoena prestatzen

Arrantzale egunaz gain, bermeotarrentzat Andra Mari eta Santa Eufemia jaietako egun berezienetakoa da Sukalki eguna. Hilaren 13an elkartuko dira koadrilak eta familiak zeinek sukalki gozoagoa egin. «Giro itzela sortzen da Taldan; goizean hasi eta gauera arte giro oso polita egoten da», dio Jai Batzordeko kideak.

Domekan, bestalde, egun guztian ume eta gaztetxoentzat jolas parkea jarriko dute. Kale antzerkia, txokolate jana, esku pelota partidak, txirrindulari lasterketa eta dardo txapelketa ere antolatuko dituzte.

Hurrengo egunean nagusientzako herri bazkaria egingo dute. «Bazkarira zaharren egoitzako adinekoak ere etortzen dira, eta haietaz egun berezia izaten da. Elkarrekin bazkaldu ostean dantzaldia egiten dugu musikak lagunduta». Egun horretan ere, nagusien danborrada, umeentzako herri kirolak eta txokolate jana egingo dituzte. Gauean, bestalde, nagusien *play back* txapelketa eta kulero eta galtzontzilo lasterketa izango dira aukeran.

Santa Eufemia egunez Xixili agurtu aurretik, bermeotarrek egun osoa izango dute jai giroaz goatzeko: baserri giroko azoka, okela dastaketa, trikitilariak, dantzaldiak... Gainera, Bermeoko baserririk zaharrena ere omenduko dute. Bestalde, aurten balkoitik balkoira bertso saioa berreskuratu dute. Miren Amuriza, Iratxe Ibarra eta Onintza Enbeita bertsolariak ariko dira kantuan.

Jaiak amaitzeko, 22:00etan Xixili agurtzeko doluzko ibilaldia egingo dute, eta portuan erreko dute jaietako zaindaria. Ostean Zaragozana su etxe-ko suzirik margotuko dute zerua. Txosnetako egitaraua ere Papardo agurtuz emango dute bukatutzat.

↓ Egitaraua, egunez egun

■ Irailak 6, zapatua.

- 12:00etan, Salome Campos igeriketa zeharkaldia, portuan.
- 13:00etan, poteoa.
- 15:00etan, herri bazkaria, Lameran.
- 18:00etan, idi probak, (Bermeoko udaleko sari nagusia), Almikako probalekuan.
- 21:00etan, kontzertua Sara-banda tabernan.
- **Irailak 7, domeka.**
- 10:00etatik aurrera, Bermeoko Udalaren XLI. Plater tiraketa saria, Atxurran (Arranotegi auzoan).
- 10:00etatik 19:00etara, bigarren eskuko azoka, Gonzalo Nardiz enparantzan.
- 10:00etan, Almikako jaien hasiera sunbadarekin eta suziriekin.
- 11:00etan, Untxi sukalki txapelketaren izen emotea, Almikako txosnan.

- 12:00etatik aurrera, Triki-pote-
oa, Almikan.
- 12:00etan, umeentzako Txiki-
ponpak, Goiko Plazan.
- 13:15ean, Untxi Sukalki Txapel-
ketako kazolen aurkezpena, Al-
mikan.
- 13:45ean, herritarren arteko
baserri kirolak, Almikan.
- 16:00etan, Itsasoko eguna,
espigoian.
- 16:45ean, Untxi Sukalki txa-
pelketako sari banaketa, Almi-
kan.
- 17:15ean, erronomia
Gozo-Gozo taldeagaz, Almikan.
- 18:00etan, Almiheko jeitsiera
txosnataraino. Bertan Jai Herri-
koien aldeko aldarri kolektiboa.
- 20:30ean, sardina jana, Almi-
kan.
- 20:30ean, Bermeoko irrintzila-
rien ekitaldia, Lamerako kiosko-
an. Ondoren, Euskal preso eta
iheslari politikoan aldeko brin-
disa, Lameran.
- 21:50ea. Xixiliren aurkezpena.

- 22:00etan, alkatearen pregoioa, ikurrinaren jasotzea eta dunbada, Goiko Plazan. Ondoren, Bermeotarrak fanfarreagaz aurrekuak eta jeitsiera Lameraraino. Handik Xixili txosnetara joango da bisita ofiziala egiteko.

■ **Irailak 8, astelehena. Andra Mari Eguna.**

- Goizean zehar, trikipoteoa, Almirikan.

- 10:00etan, udalbatza kontziotopiean batuko da Alkate Soinua entzuteko. Ondoren, Almikarantz abiatuko da udalbatza. Kankinkabara Txistu Taldea, Anton, Josefin, Lorentzo eta Mari erraldoiak, Bermeoko erraldoien konpartsa, Alkartasuna dantza taldea eta Aiarako musika bandagaz batera.

- 11:00etan, meza nagusia Almirakako Andra Mari elizan. Ondoren, ohorezko aureskua Alkartasuna Dantza Taldearen eskutik, eta erraldoien konpartsaren ekitaldia, Almirkan.

-13:00etan, Aiarako musika bandaren kontzertua, Andra Mari ko elizpean.

-13:00etan, Bermeoko erraldoien konpartsaren kalejira, Alde zaharretik.

-13:00etan, Andra Mari eguneko azken meza, Almikan.

-13:30ean, Barrueta Arte Elkarteko kideen lanen LXIII. erakusketaren inaugurazioa, Batzokiko Kultur Aretoran.

-18:00etan, esku pelota partidak, Artza frontoian.

-18:00etan, umeen danborrada, Aiarako Musika Bandagaz.

-18:00etan, idi probak, Almikako probalekuan. Ondoren, sari banaketa, Almikako probalekuan bertan.

-22:00etan, Valecea Pirotekniaren eskutik, suziriak espi-goian.

-22:30ean, El Cachivache Tango, Lameran

■ **Irailak 9, martitzena. Arrantzaleen Eguna.**

-11:00etan, meza arrantzaleen omenez, Santa Eufemia elizan. Ondoren, kalejira txistulariekin, lore eskaintza, ohorezko aurrekua galdaradun baporetan biziak galdu dutenei, eta itsasoan biziak salbatu dituzten gizonei, eta omenaldia Gaztelugatxeko Donieneko zaintzaileei. Andra Mari eta Santa Eufemia elizetako abesbatzaren parte hartzeagaz.

-13:00etan, aurrekuak eta zabaleak, Goiko Plazan. El Despiste, Los Incansables eta Patxaranga fanfarreekin eta trikitilariekin.

-13:30ean, jaitsiera fanfarreekin eta trikitilariekin, Taraskari lorak eskaintzera. San Frantzisko enparantzaraino.

-15:30ean, Euskal preso eta iheslari politikoen aldeko herri bazkaria bertoko eta sasoiko produktuekin, Portu Zaharrean

-Arratsaldean zehar, El Despiste, Los Incansables eta Patxaranga fanfarreak eta trikitilariak ibiliko dira herriko kaleetan zehar.

-19:00etan, Gaupasa taldearen bilbainadak, Lameran.

-21:30ean, Honat taldearen dantzaldia, Lameran.

-01:30ean, FM diskoteka, Lameran.

-Goizaldean, *Ai Laket!* testing programa, Lameran (Droga erabiltzaileei arriskuak murriztearen alde).

■ **Irailak 10, eguaztena. Andra Mari Hirugarrena.**

-17:00etan, umeentzako ponia, Erreten Lameran.

-18:00etan, mus txapelketa, Bermeoko Kafe Antzokian.

-18:00etan, herri kirolen XL. edizioa, Artza frontoian.

-19:00etan, umeen ikuskizuna,

Markeliñe Antzerki Taldearen *ZooZoom* lana, Gonzalo Nardiz enparantzan.

- 22:00etan, bertso saioa, Artza frontoian.

■ **Irailak 11, eguena.**

- 11:30ean, XXXII. Bermeoko Uria Ikurrina estropadaren aurkezpena, kultur etxean.

- 18:00etan, mus txapelketaren finala, Bermeoko Kafe Antzokian.

- 18:00etab, XXXIV. Bermeoko Hiria esku pelota txapelketa, Artza frontoian.

- 18:00etan, futbolen txapelketa, Casco Viejo tabernean.

- 18:00etan, umeentzako bits jaia Lameran. Ondoren, ur jaurtiketa Bermeoko Herri Babesaren laguntzagaz.

- 20:00etan, ume eta gaztetxoaren play-back txapelketa, Lameran.

- 21:00etan, antzerki amateurra: *Abuela China, Hijo Tirolés*. Katillotxu Antzerki Taldearen eskurik, Nestor Basterretxea Aretoan.

■ **Irailak 12, barikua.**

- 15:00etan, IX. Batel estropada, Erroxape Kaian.

- 17:00etan, umeentzako tailerrak Gonzalo Nardiz enparantzan (Euria eginez gero, Frantziskotarren arkupean).

- 20:00etan, Drag Queen kalejira, portutik.

- 20:00etan, Zornotzako Zaparrada batukada taldearen kalejira, alde zaharretik.

- 21:00etan, mozzorro-dantza eguna, eta ligoteo jolasak. Herriko taldeen erakustaldiak, Lameran.

- 21:00etan, antzerki amateurra: *Abuela China, Hijo Tirolés*. Katillotxu Antzerki Taldearen eskurik, Nestor Basterretxea Aretoan.

- 23:00etan, Zartada taldearen kontzertua, Lameran. Ondoren, Vendetta taldearen kontzertua, Lameran bertan.

■ **Irailak 13, zapatua. Sukalki Eguna.**

- 11:00etan, sukalki txapelketarako izena ematea, Talan.

- 12:00etan, trikitixa kalejira, Talan.

- 13:00etan, sukalki txapelketarako kazolen aurkezpena, Talan.

- 17:00etan, sukalki txapelketaren sari banaketa, Talan.

- 18:00etan, Samasiku eta Gazteleku fanfarreen kalejira, Talan.

- 19:30ean, Samasiku eta Gazteleku fanfarreekin jeitsiera, Talatik.

- 22:00etan, Haitzama taldeagaz dantzaldia, Lameran.

■ **Irailak 14, domeka.**

- 10:00etatik 15:00etara, Oiloen erakusketak, Lameran.

- 10:00etan, LIV. Sollube zirkuitua (23 urtez azpiko elite maila

primera!
Gazteentzako
Kutxabanken planak,
proposamenak eta
irtenbideak.

Kutxabanken hipoteka gaztea*:

-0,25

**zure hipotekaren prezioan,
35 urte baino gutxiago
eukiteagatik**

* Hipoteka-maileguaren titularren
arteak helduenak 35 urte bete arte.
Hipoteka-mailegua emateko,
aurrez eragiketa onartu
behar da Kutxabanken
arrisku-irizpideen
arabera.

primera!

Kutxabank, S.A., Kale Nagusia, 30-32, Bilbo, JFk: A95653077. Bizkaiko Merkataritza Erregistroan Inskribatuta. 5226 Tomoa, 0 Liburua, BI-58729 Orria, 1 Inskripzioa.

Andra Mari eta Santa Eufemia jaiak →

ko txirrindularitza lasterketa). Ondoren, sari banaketa, Itsasoa Galdutakoen Lameran (Per-golan).

- 12:00etan, Ama Begoñakoa urpean tronuratzearen LI. urteurrena. Bermeoko San Juan aurreko ikuspegian errespontsua (Euria eginez gero, Frantziskoarren arkupean).

- 12:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara, ume eta gaztetxoek jolas parkea, Gonzalo Nardiz enparantzan.

- 18:00etan, XXXIV. Bermeoko Hiria Esku pelota txapelketa, Artza frontoian.

- 18:00etan, dardo txapelketa, Casco Viejo tabernan.

- 19:30ean, Trapu zaharra taldearen *Vive soñando* kale antzerkia, Irakaskintza kalean.

- 20:30ean, txokolate jana, Irakaskintza kalean.

- 22:00etan, suzko zezena, Goiko Plazan.

■ Irailak 15, astelehena.

- 14:00etan, nagusientzako herri bazkaria, Bermeoko Kafe Antzokian.

- 15:30ean, Xandalo taldeagaz dantzaldia, Bermeoko Kafe Antzokian.

- 18:00etan, billar txapelketa, Casco Viejo tabernan.

- 18:00etan, danborrada, Aiara-ko musika bandagaz.

- 21:30ean, Aiarako musika bandaren kalejira, Santa Eufemia enparantzaraino. Bertan ekitaldia egigo dute.

- 22:00etan, nagusien play back txapelketa, Lameran. Ondoren, kantzontzilo eta kule-roen lasterketa, alde zaharreko kaleetatik.

■ Irailak 16, martitzena. Santa Eufemia Eguna.

- 10:30ean, Baseri Giroko azoka, Lameran.

- 10:45ean, udalbatza kontzietik joango da Santa Eufemia elizara. Aiarako Musika Bandak eta Bermeoko Txistulariek lagunduta.

- 11:00etan, meza nagusia Santa Eufemia elizan. Meza ostean, udalbatza Santa Eufemia enparantzan batuko da Bermeoko Txistularien Alkate soinua entzuteko. Leku berean ere, Bermeoko erraldoien konpartsaren ekitaldia, eta Aiarako musika bandaren saioa. Ondoren, Bermeoko erraldoien konpartsaren kalejira, Santa Eufemia enparantzatik Lamerara.

- 12:00etan, trikitilariak azoka eta inguruetatik.

- 12:00etan, okela dastaketa, Lameran.

- 12:45ean, balkoitik balkoira bertso saioa, Santa Eufemia enparantzan. Iratxe Ibarra, Miren Amuriza eta Onintza Enbeita bertsolariekin.

- 13:30ean, Bermeoko baserririk zaharrenari omenaldia, Santa Eufemia enparantzan.

- 18:00etan, esku pelota partidak, Artza frontoian.

- 19:00etan, dantzaldia Aiarako bandagaz, Lameran.

- 22:00etan, Doluzko ibilaldia, Aiarako Musika Bandak lagunduta, Xixili aurretik dela. Azken agurra eman, eta Xixili erreko dute Ronpiolasen.

- Ondoren, Zaragozana pirotekniaren eskutik, suzirik espi-goian.

■ Irailak 20, zapatua.

- 09:00etatik 19:00etara, Bermeoko eskulangintza azoka Lameran, Tarratadien antolatuta.

- 12:00etan, poteoa Lamerako txosnan hasita.

- 15:00etan, koadrila arteko argazkia. Ondoren, herri bazkaria Lameran (Euria eginez gero, Frantziskotarren arkupean).

- 16:30ean, gazte olinpiadak Lameran, (Euria eginez gero, Frantziskotarren arkupean).

- 17:00etan, Bou Bizkaia Peña-ren kalejira, El Despiste Fanfarragaz. San Migeleko eskilaretatik Ronpiolaseraino.

- 18:00etan, XXXII. Bermeoko Uria ikurrina estropada.

- Ondoren, XXXII. Bermeoko Uria ikurrinaren sari banaketa, itsasoan.

- 19:30ean, Slacine, Lameran.

- 20:30ean, kontzertuak Lameran: Zona Zero, Galarren eta

Lauroba. Amaitutakoan, erro-meria Akerbeltz taldeagaz, Lameran bertan.

TXOSNAGUNEKO EGITARAUA

■ Irailak 6, zapatua. EHko I. Elektrotxaranga topaketa.

- 12:00etan, harrera txosnetan.

- 13:00etan, lagunarteko poteoa, Orkresta elektrotxaranga-gaz.

- 15:00etan, musikarien eta herriarren arteko herri bazkaria, Lameran (eguraldi txarragaz Taraskan).

- 17:00etan, bazkalostean, txaranga kirolak: baffle jasotzaile, karro-tiralari, tronpeta nota altuena nork jo, tronboiari luzeen nork putz egin...

- 19:00etan, elektrokalejira nagusia. Denak batera koordinatuta herri osoan plazarik plaza.

- 22:00etan, topaketaren amaiera jaia txosnetan.

- 22:30ean, Tximino rock taldearen kontzertua, txosna arteko karpapean.

- 23:30ean, musika pintxada: Mambrü (dantza baltza, rock garratza).

■ Irailak 7, domeka. Almiheko jaitsiera.

- 18:00etan, Almiheko jaitsiera. Bermeoko koadrilak eta Busturialdeko txosnariak batera.

Amaieran, jai herrikoien aldeko ekitaldia.

- 22:00etan, Xixiliren aurkezpena, orga gainean Goiko plazara eramanda. Txupinazoaren ostean, Xixiliren bisita ofiziala aurtengo txosnetara.

- 23:00 etan, kontzertu pintxada: Sac & Gatom (hip hop, trap dubstep).

■ Irailak 8, astelehena. Andra Mari Eguna.

- Papardoa erraldoiekin batera Goiko Plazara eta Almiheko.

- 20:30ean, bakarrizketa txosna arteko karpapean: Eneritz Artetxe (Dxusturi konpainia).

■ Irailak 9, martitzena.

- Papardo kalerik kale goizean zehar, txaranga eta fanfarreen atzetik.

- 15:00etan, portuan, preso eta iheslarien aldeko herri bazkaria, bertoko eta sasoiko produktu ekologikoekin.

- 19:00etan, Nuntxakuren karroa kalerik kale: Erribera, alde zaharra eta portu punta.

Amaieran, Papardok berba batzuk esango ditu.

- 02:00etan, musika pintxada: Ricard Vernet 'Cinexin' (dantzarako elektronika).

■ Irailak 11, eguna. Tortilla txapelketa.

- 18:00etan, izen ematea.

- 19:00etan, patatak zuritu eta sartenak berotu.

- 20:00etan, tortilak aurkeztu eta jan.

■ Irailak 12, barikua. Mozorro-dantza eguna.

- 21:00etan, herriko dantza taldeen erakustaldiak: saltsa, euskal dantzak, sabel dantza, sevillanak, saloiko dantzak, flashmob-a...

- Gau osoan, ligoteo jolasak.

- 01:30ean, musika pintxada: The Harvey's Cave (rock&roll&more).

■ Irailak 13, zapatua. Sukalki Eguna.

- Papardo Talatik ibiliko da egunean zehar. Aurreskuaren atzetik bajatuko dira herritarrek Talatik.

- 02:00etan, musika pintxada: Makatz Sound Syster (patxanga punk).

■ Irailak 15, astelehena.

- 19:00etan, umeentzako herri kirolak.

- 20:00etan, txokolate jana.

■ Irailak 16, martitzena. Baserri Eguna.

- 11:00etatik 13:00etara, txalaparta tailerra ume, gazte eta nagusientzako, Bermeoko Tta-kuntxo taldeagaz.

- 13:00etan, herri probak. Desafioa: Aitor Lupiortu I-aren eta Gorka Lupiortu II-aren artean, bakoitzak 4 untze nork arinago.

Zelailuze harriak jasotzen: 100 kiloko zilindro zaharragaz eta 113 kiloko harri kubikoagaz. Amaitzeko, hirurak lastoa botatzen elkarren kontra.

- 21:30ean, Xixiliri agur esatera Papardogaz batera. Ostean, Papardori azken agurra.

Irudia



JAIK AURKEZTUTA, FESTARAKO PREST

Domekan hasiko dituzte jaiak Bermeon; hala azaldu zuten Bermeoko alkate Idurre Bidegurenak eta Jai Batzordeko kideek Andra Mari eta Santa Eufemia jaiak aurkezterakoan. Hilaren 16ra arte bitartean, ez dute etenik izango bertoko festek; hala, herriko zein kanpokoek musikagaz, kirolagaz, gastronomiagaz, suziriez, txapelketek eta beste hainbat ekitaldigaz gozatzeko aukera izango dute. Gainera,

jai «guztiz parte hartzaileak» izango direla aurreratu zuen alkateak aurkezpenean. Hori dela eta, herritar guztiak horietan parte hartzera gonbidatu ditu. Era berean, Jai batzordeko kide zein jaiak antolatzen egon diren norbanako eta taldeak eskertu eta zoriondu ditu, «urte guztian zehar egindako lanagaz eta esfortsuagaz, herri hobe bat eraikitzen laguntzeagatik». BERMEOKO UDALA

Andra Mari eta Santa Eufemia jaiak →

Ekaitz Goienetxea ► Bermeoko txosnak

Domekan jaiei hasiera eman aurretik, ekimen berritzailea dakartzate Bermeoko txosnek, bihar: Euskal Herriko Elektrotxaranga Topaketa egingo dute lehenengoz, eta Bermeoko kaleetan izango da.

«Jendearen borondateagaz sortutako ekimena da»

Oihana Cabello

Herritarrek dira, eta herritarrentzako jaiak prestatu dituzte. Bermeoko txosnek bermeotarrek gozatzeko egitaraua dakartzate aurreten ere. Talde eta norbanako asko izan dira jaiak antolatzen, eta horietako bat da Ekaitz Goienetxea (Bermeo, 1982). Ekimen ugari izango dira; eta berritasunen artean, Euskal Herriko Elektrotxaranga Topaketa.

Zelan sortu zen elektrotxarangen topaketa egiteko idea?

Bermeoko txosnek jaialdi berezia egin nahi izan dugu, agerian uzteko herriarentzat antolatzen dugula jaia. Hasiera batean kontzertu handia egitea pentsatu genuen, baina, Nuntxakuko lagun baten proposamena izan zen elektrotxarangen topaketa egitea, eta egokiago ikusi genuen. Lanean hasi, eta Gasteizko Ttek kultur elkartearekin ere ideia berari bueltaka ari zela jakin genuen. Hala hasi ginen lanean.

Zenbaterik parte hartuko dute?

Bost seguru, eta, posible bada, beste bi elektrotxaranga ere ekarri nahiko genituzke.

Zeintzuk dira Bermeon batuko diren elektrotxarangak?

Gasteizko Ttek, Azpeitiko Skandalua, Mendaroko Motxaila Band, Bilboko Orkresta eta Portugeteko Txarangaz. Horiek dira seguru etorriko direnak.

Egun osoko jai izango al da?

Bai. Eguerdirtik aurrera Orkrestarekin poteoa egingo dugu herritarrok, elkar ezagutzeko aukera sortuz. Ostean, bazkari herrikoia egingo dugu. 200 lagunentzako txartelak atera genituen, eta, guztiak salduta, beste horrenbeste atera behar izan ditugu. 100 txartel egunean bertan saltzeko gordetako ditugu, kanpotik datozenentzat. Bazkalosterako, ordea, txarangekin lotutako jolasak antolatu ditugu: txaranga kirolak. Kalejira nagusia 19:00etatik 22:00ertara egingo dugu. Elektrotxaranga bakoitza herriko plaza batean hasiko da, eta kalerik kale ariko dira.

Zeintzuk dira plaza horiek?

Zortzi guztira, eta elektrotxaranga horietatik pasatuko dira:



IZARO MENDIETA

Erribera, Taraska, Santa Barbara, Goiko plaza, Kultur etxe atzea, Portuzarra, Portuzarreko punta eta Lamera erdigunea.

Eta non batuko dira?

Txosnagunean batuko dira denak, 22:00etan. Gainera, denek batera abesti bera jotzea da asmoa. Hala ere, abestia zein izango den erabaki gabe dago oraindik.

Ekimenak zelako harerra izan du elektrotxarangen artean?

Oso ona. Gasteizko Ttek elektrotxarangarekin harremanetan jarri ginenean segituan deitu ziguten esanez beraiek ere ideia berari bueltaka ari zirela. Beraz, elkarlanean prest izan dira hasieratik. Gainontzekoen erantzuna ere oso ona izan da, eta, arrazoi ezberdinak medio, parte hartu ezin dutenak penarekin dira. Are gehiago, aurrekontuari buruz ez dugu hitz egin; ez da diruarekin antolatutako jaialdia izango, baizik eta jendearen eta herritarren borondatearekin sortutakoa.

Bermeon egingo duzue lehenengo topaketa. Hurrengoari begira?

Ikusi behar lehenengoa zelan doan; espero dugu ondo ateratzea. Eta hurrengoa? Idearik ez. Gasteizkoen asmoa zen han bertan egitea, baina guk anfitrioi lanak egin ditugu eta Bermeon egingo dugu. Baliteke hurrengo urtean beste herriren batean egitea topaketa, eta Bermeon beste topaketaren bat antolatzea. Egia esateko, ez dugu horretan pentsatu; ezin jakin txosnen inguruan

lanean ari garenok hurrengo urtean non egongo garen.

Lan handia izango da.

Bai, eta batzarretan bakarrik ordu piloak eman ditugu. Lan handia da, eta pertsona asko daude horren atzean: elkarrekin jendea, musikarekin arduratuko direnak. Txosnarik jarriko ez duten ezta ezein elkarterko kide ez diren beste hainbeste norbanakok parte hartu dute.

Topaketaz gain, egitarauko zein ekimen nabarmenduko zenuke?

Ilusio berezia izaten dut Almikeko bajadan parte hartzeko. Irailaren 7an, domekan izango da. Herritar askok parte hartzen du eta oso polita izaten da. Berez, herritarrek batzea eta musikarekin Almiketik herrigunera jaistea besterik ez da, baina giro itzela sortzen da. Aurreten, gainera, Busturialdeko herri mugimendu ezberdinei zuzendutako deialdia egin nahi dugu. Hala, beraiek euren herritan egin duten lana eskertzeko, omenaldi-ospakizun antzeko zerbitzu egin nahi dugu.

Eta berritasunik?

Barikuan herriko dantza talde denak edo gehienak batuko direla herritarrei oinarritzko pausoak erakusteko, eta erakustaldi bat egiteko: Alkartasuna dantza taldea, Bilbosalsa, Txo Sevilla, sabel dantzen taldea, saloiko dantzena... Azken finean, jende asko batuko duen ekintza da, eta herritarrek herritarrentzat eginiko zerbitzu izango da.

GUZURMENDI
K A F E T E G I A
Arranegi, 2 • LEKEITIO • 94 624 37 25



SEGUROS BILBAO Grupo CATALANA OCCIDENTE

Ondo pasa jaietan!!!

Eskoikiz 6, behe 48370 Bermeo (BIZKAIA) TEL.: 94 618 70 99



Marinel estiloko arropa, oroigarriak eta ur-ekintzen arduraketa

Nardiz tar Benantzio, 20
48370 Bermeo BIZKAIA

itsasorabegira@gmail.com
www.itsasorabegira.com
on-line denda



Bizkaiko Jaurerria 6, behe Bermeo (Bizkaia)
e-mail: jarekids@gmail.com
Tel.: 94 688 06 36

Iparragirre 3, behe Gernika (Bizkaia)

umientzako erropak
umientzako erropak